

IRAKASLEAK

• IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK. **ADI!!!**

Egutegia argitaratu dute eta **prozesu guztien datak aurreratu dituzte**. [EGUTEGIA](#). Honen inguruko informazioa eta agindua [Hezkuntzako web orrian](#).

• OPORRALDIAREN ORDAINKETA. **GOGORATU!!!**

Ekainaren 30a baino lehen izendapena amaitu bazaizu eta udako ordainketa hasten denean, (uztailak 1), izendapena eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eragozten duen aldi baterako ezintasun, gurasotasun, harrera edo adopzio egoeran dagoenak, **uztailaren 1a baino lehen egoera hori**, dagokion [Lurralde Ordezkaritzan](#) justifikatzeko agiriak aurkeztu behar ditu. [Deialdia](#).

• ZERBITZU EGINKIZUNAK. LUZAPENAK

Karrerako funtzionarioek, lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinoa zerbitzu-eginkizunetan dauden ikastetxea ez den beste batean lortu badute, **idazki bat aurkeztu** beharko diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, **2021eko maiatzaren 24tik 28ra bitarteko epean**, bietako zein destino hautatzen duten adieraziz. Hori egin ezean, zerbitzu-eginkizuna bertan behera geratuko da, lekualdatze-lehiaketan esleitutako lanpostura itzuliz.

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

• PROZESU EZBERDINEN INGURUKO INFORMAZIOA.

- Lanaldi partzialeko bitarteko ordezkapen-kontratuari uko egiteko epea. **Maiatzaren 31tik ekainaren 4ra**.
- Autodesplazamendu prozesua. **Maiatzaren 31tik ekainaren 4ra**.
- Berritzegunera atxikita dauden langileen ikastetxeen esleipena: behin betiko ebazpena. Hezkuntza web orrian **maiatzaren 28an**.
- Berritzegunera atxikita ez dauden langileen ikastetxeen esleipena (ZHIak izan ezik): behin betiko ebazpena. Hezkuntza web orrian **maiatzaren 28an**.

Egonkortasunari buruzko argibideak behar ditugu ORAIN!!!